

+ Irakurri arreta handiz hurrengo testua.


Estatistikan ohikoa da biztanleen azterketaz hitz egitea. Ezin dugu ahaztu Estatistika zentsutik sortu zela eta bere historia osoan zehar horri oso lotuta egon dela.

Biztanleei eta horien bilakaerari buruzko datuak adierazteko grafiko bat baino gehiago dago, baina berezianak biztanleriaren piramideak izenekoak dira.

Adin-tarte jakin batzuetan sexu bakoitzeko pertsona kopurua adierazten da grafiko horietan; behealdean gazteenak islatzen dira eta goialdean adinekoenak.

Ondoko grafikoan duzun piramidean Euskal Autonomia Erkidegoak 1975 eta 2001 urteetan zuen biztanle kopurua ematen da, 5 urteko adin-tartearekin.

Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleen piramidea 2001 - 1975




Piramidearen itxurak biztanleen ezaugarri batzuk ematen ditu.


Izan ere, ardatz bertikalarekiko simetrikoa den piramideak adierazten du gizon eta emakume kopuruak antzekoak direla. Piramide asimetriko batek, ordea, biztanle horien kopuruak ezberdinak direla adieraziko du.

+ Albaniaren kasuan, adibidez, piramidea nahiko simetrikoa da. Baina Errusiaren piramidean disimetria argiagoak ikusten dira, adin jakin batetik aurrera emakume gehiago dagoelako.

Piramide simetrikoa



Piramide asimetrikoa




Bestalde, piramide "normalak" oinarri zabala izaten du eta gero pixkanaka estutzen joaten da. Horrek adierazten du biztanle gehienak gazteak direla.


Aitzitik, oinarria erdialdea baino estuagoa duen piramideak adierazten du biztanleria zahartzen doala.

Grafiko hauetan ikusten da Ekuadorren (2000) gazte ugari dagoela baina, aurreikuspenen arabera, Italian (2025) zahar ugari egongo dela.

Biztanleria gaztea



Biztanleria zaharra



US Census Bureauk emandako datuak dira:
<http://www.census.gov/ipc/www/idbpyr.html>

Egizu glosario bat testuan erabiltzen diren termino estatistiko guztiekin.